

## FAMILIENTZAKO AHOLKU BALIAGARRIAK

### 9. aholkua. Ezagutzen al duzu bideo-jokoen eta online jokoen / jokalari anitzen mundua?

1. Bideo-jokoak dira gehien hazi diren teknologia berriak. Iraultza handia ekarri dute, batez ere aisialdiaren eta denbora librearen esparruan. Estatistika batzuen arabera, 7 eta 13 urte bitarteko adingabeen % 80 baino gehiago jolastu ohi dira bideo jokoetan.
2. Jakin behar dugu belaunaldien arteko esparrua dela, hau da, adingabeek nahiz helduek elkarrekin jokatzeko dutela.
3. Mendetasuna eragin dezakete, oso dibertigarriak eta motibagarriak direlako. Gainera, ohikoa da jokoak berak eragitea etengabe elementu estimulatuarekin konektatuta egon behar izatea. Gehiegizko erabilera saihesteko, funtsezkoa da bideo-jokoetan jokatzeko ematen duzun denbora eta beste ekintza batzuetarako ematen duzun denbora tartekatzea.
4. Bideo-jokoak aisialdirako ohiko tresna bilakatu dira, bereziki gazteen artean. Etxean, zuhur jokatzeko, komeni da bideo-kontsola edo ordenagailua eremu partekatuan jartzea, adingabea bakartuta egon ez dadin.
5. Bideo-jokoen erabileraren inguruan negoziatzean, alderdi hauek ager daitezke: jokoaren beraren gaia eta edukia eta nola hurbiltzen den itxura batean errealitate horretara (arlo horretan izango duzue etxean eztabaida gehien).
6. Helduek zorrotz jokatu behar dute jokoak hautatzean, edukiak eta seme-alaben adina aintzat hartuta. Hautaketa hori egiteko denbora behar duzue; bestela, adingabea bere adinari ez dagozkion edukien (indarkeria, sexua, gatazka...) esposizioan jar dezakegu. Familiok aintzat hartu behar ditugu fabrikatzaileek emandako gomendioak, ezarritako kodeen arabera. Bideo-jokoak adinaren arabera egokiak ote diren jakiteko, begiratu PEGI (bideo-jokoak sailkatzeko sistema) kodearen ikurrei. Hala ere, kontuan hartu behar da neska-mutiko guztiek ez dutela heldutasun bera.
7. Ikuspuntu positibotik begiratuta, begi-bistakoa da bideo-jokoak dibertigarriak eta estimulatuak direla, eta gazteen artean gaitasun jakin batzuk garatzen laguntzen dutela. Uste dugu bideo-jokoetan jokatzeko aisialdiko denbora igarotzeko modu egokia dela, betiere denbora igarotzeko modu bakarra ez bada (kirolak, aire zabaleko ekintzak, familiako ekintzak, lagunak, ekintza kulturalak...)
8. Bideo-jokoetan denbora gehiegi emateak bakartuta geratzea ekar dezake, baita gaitasun sozialak garatzeko zailtasunak izatea ere.
9. Zenbaitetan kontuan izaten ez badugu ere, jokalari anitzeko jokoak (askotariko parte-hartzaileekin) jende ezezagunarekin jokatzeko espazioak dira (pertsonek helduak izan daitezke), eta informazio pertsonala babesteko eta partekatzeko aukera ematen dute. Seme-alabei erakutsi behar diezu ez dutela informazio pribaturik partekatu behar; bestela, beren burua identifikatu, eta kalte eragin diezaiokete. Pertsona askoren ustez, jokalari anitzeko bideo-jokoak sare sozialak dira. Hori dela eta, komeni da lagunekin jokatzeko (pertsonek ezagunak eta haien adinekoak).
10. Gomendatzen dugu familia guztiarentzako jokoren bat aukeratzea. Hala, espazio partekatua sortzeaz gain, zure seme-alabek denbora kudeatzen, txandak errespetatzen eta abar ikasiko dute.